



ERABAKIA, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK 2017KO URTARRILAREN 16KO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA BALIOZTATZEN DUENA ETA PERTSONA BERAK 2017KO URTARRILAREN 20KO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA BALIOGABETZEN DUENA. BI ERABAKIAK EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN (EMF-FVM) HAUTESKUNDE BATZORDEAK HARTU ZITUEN.

Espediente-zenbakia: 13/2017 eta 18/2017

AURREKARIAK

Lehena.- 2017ko urtarrilaren 19an, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Bizkaiko Mendizale Federazioaren (BMF) Batzarreko kide –Kirolarien Estamentuaren aldetik– eta Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Batzarreko ordezkari gisa, errekurtsoa aurkeztu zuen Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 16ko ebazpenaren kontra. Bertan, Federazioaren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko hautagaitza baliogabetu zedila eskatzen zuen, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak eskatua.

Kirol Justiziako Euskal Batzordeak eskaera izapidetzea erabaki eta Euskal Mendizale Federazioari (EMF-FVM) bideratu zion hura, 15 egun balioduneko epean, hark espediente osoaren fotokopia konpultsatua eta kasuan kasuko alegazio-idazkia aurkez zitzan, eta, hala bazegokion, egokitzat jotzen zituen froga-eginbideak proposa zitzan.

Bigarrena.- 2017ko urtarrilaren 31n, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Euskal Mendizale Federazioaren (EMF) Batzarreko kide –Kirolarien Estamentuaren aldetik– eta Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Batzarreko ordezkari gisa, errekurtsoa aurkeztu zuen Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 20ko ebazpenaren kontra. Bertan, «Federazioaren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko boto-



txartela» eredia baliogabetu zedila eskatu zuen, 2017ko otsailaren 2ko Batzarrean erabili beharrekoa.

Kirol Justiziako Euskal Batzardeak eskaera izapidetzea erabaki eta Euskal Mendizale Federazioari (EMF-FVM) bideratu zion hura, 15 egun balioduneko epean, hark espediente osoaren fotokopia konpultsatua eta kasuan kasuko alegazio-idazkia aurkez zitzan, eta, hala bazegokion, egokitzat jotzen zituen frogagintza proposa zitzan.

Hirugarrena.- 2017ko otsailaren 10ean, Euskal Mendizale Federazioak (EMF-FVM) aurkeztutako dokumentazioa jaso zen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kirol Justiziako Euskal Batzardeak du aurkeztutako errekurtsioak aztertzeko eskumena, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan eta Kirol Justiziako Euskal Batzardea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan.

Bigarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 57. artikuluan ezartzen duena aplikatuko da:

«57. artikulua. Metatzea.

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo interesdunaren eskariz, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

Kasu honetan, bistakoa da bi errekurtsioak elkarrekin lotuta daudela, bi errekurtsioak gai berari buruzkoak baitira.



Horrenbestez, horiek bateratzea erabaki da, bi errekurtsioak erabaki honen bitartez erantzuteko helburuarekin.

Hirugarrena.- Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 16ko Ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsioan, hau da, Federazioaren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak nagusitutako hautagaitza baliogabetu zedila eskatzen zuen errekurtsioan, errekurtsogileak honako hiru arrazoi hauek planteatu zituen:

- Aurkaratutako hautagaitzaren titularra (**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jauna) Batzarreko kide den ala ez egiaztatu beharra, klubak igorritako ordezkari-tz-zurtagiriaren bitartez.
- Euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 60.4 artikuluari jarraikiz, hautagaitzan ez da artikulua horretan eskatutako gizon eta emakumeen arteko ordezkari-tz orekatua betetzen.
- EMFren estatutu-tako 26.1. artikulua eta Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren 90. artikulua araber, Zuzendaritza Batzordeen kide kopurua bakoitia izango da.

Errekurtsioaren lehen arrazoiari dagokionez, eta Euskal Mendizale Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2017ko otsailaren 1eko aktari jarraikiz, lehen erabakian honako hau adierazten da: **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunaren hautagaitza zuzendu da, dagokion denboran eta moduan, hautagaitza jatorrizko sinadurekin eta ordezkari-tz duen elkartearen ordezkari-tz-zurtagiarekin batera aurkeztu ostean. Horrenbestez, alderdi hori behar bezala konpondu da.

Errekurtsioaren bigarren arrazoiari dagokionez, Euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko



irizpideak finkatzen dituen Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 60.4 artikuluari jarraikiz, hautagai-zerrendak aurkezteko honako alderdi hauek bete beharko dira, besteak beste:

«Zuzendaritza Batzorderako hautagaietan emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-orekatua gorde beharko da. Ordezkaritza orekatutzat joko da baldin eta bi sexuok, gutxienez, % 40ko ordezkari-orekatua badute. Hauteskunde-prozesuaren denboraldian gizonen edo emakumeen federazio-lizentziak % 40tik behera diren kirol federazioetan nahikoa izango da gutxiengoa den sexuaren ordezkari-orekatua berdintzea edo gainditzea berari dagozkion federazio-lizentzien ehunekoa».

Xedapen horren edukia argia da eta interpretazio bat baino ez du onartzen: Zuzendaritza Batzordearen hautagaitzek gizon eta emakumeen ordezkari-orekatua izan behar dute, eta oreka hori hauteskunde-prozesuan indarrean den garaiko gizon eta emakumeen federazio-lizentzien arabera izango da.

Errekurtsoa jarri zaion hautagai-zerrendan ez da emakume bakar baten ordezkari-orekatua agertzen. Horrenbestez, hautagaitza horrek ez du arestian aipatutako 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 60.4 aginduko baldintza betetzen.

Errekurtsoaren hirugarren arrazoiari dagokionez, EMFren Estatutu-26.1 artikulua eta Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuko 90. artikulua Zuzendaritza Batzordeen kide kopuruak bakoitia izan behar duela ezartzen dute, eta alderdi hori **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak eta **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak aurkeztutako hautagaitzekin lotzen du, EMFren lehendakari-orekatua eta Zuzendaritza Batzorderako, hurrenez hurren. Dena den, haren arrazoiak ez dira garbi geratzen, bi hautagaitzetan lau pertsona aurkeztu baitira lehendakariaren, lehendakari-orekatuaren, idazkariaren eta diru-zainaren lanpostuetarako; gainera, bi hautagaitzetan boto-eskubiderik gabeko ordezkariak aurkeztu dira, behin betiko onartutako EMFren lehendakariaren eta zuzendaritza-batzordearen aukeraketarako boto-txartelaren arabera. Horrela, bada, errekurtsogileak hautagaitzen problematikarekin lotuta aurkeztu duen argudioak ez dira garbi geratu, baina EMFren Estatutu-26.1 artikuluan eta Euskadiko Kirol Federazioen urtarriaren



31ko16/2006 Dekretuko 90.1 artikuluan argi eta garbi zehazten da «Zuzendaritza Batzardearen kide-kopurua bakoitia izango dela».

Errekurtsoaren hiru arrazoiak aztertu ostean, eta zentzu horretan emandako arrazoiekin bat etorritik, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak Bizkaiko Mendizale Federazioaren Batzardeko kide XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak aurkeztutako errekurtoa **onestea** erabaki du. Errekurto hori Euskal Mendizale Elkartearen Hauteskunde Batzardeak (EMF-FVM) 2017ko urtarrilaren 16an aurkeztutako ebazpenaren kontrakoa da, eta XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak aurkeztutako Federazioaren lehendakari eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaitza baliogabetu dadila eskatzen du, hark hautagaitzak aurkezteko baldintza betetzen ez duelako –gizon eta emakumeen ordezkariak orekatuak izan behar diren–, euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 60.4 artikuluan zehazten den baldintza.

Laugarrena.- Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Hauteskunde Batzardeak 2017ko urtarrilaren 20an aurkeztutako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtoan, hau da, 2017ko otsailaren 2ko Batzardean erabili beharreko «EMFren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzardea hautatzeko boto-txartela»ren eredu baliogabetzat jo dadila eskatzen duen errekurtoan, Euskal Mendizale Federazioak (EMF-FVM) txartelen eredu errekurtsogilearen eskakizunetara egokitu dela egiaztatu du aurkeztutako dokumentazioan, kasuan kasuko txartel-ereduen kopia aurkeztuz. Horrenbestez, errekurtoaren xedea galdu dela esan genezake, eta, beraz, egoera hori adieraztea eta errekurtoa arrazoi hori dela-eta ez onartzea erabaki da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak, honako hau

EBAZTEN DU

1.- XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Bizkaiko Mendizale Federazioaren (BMF) Batzarreko kide –Kirolarien Estamentuaren aldetik– eta Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Batzarreko ordezkari gisa, Euskal Mendizale



Federazioaren (EMF-FVM) Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 16ko ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtoa onestea. Bertan, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Federazioaren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko aurkeztu zuen hautagaitza baliogabe zedila eskatzen zen.

2.- Xedea galdu izanik, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak, Bizkaiko Mendizale Federazioaren (BMF) Batzarreko kide -Kirolarien Estamentuaren aldetik- eta Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Batzarreko ordezkari gisa, Euskal Mendizale Federazioaren (EMF-FVM) Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 20ko ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtoa ez onartzea. Bertan, «Federazioaren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko hautagaitza» baliogabetu zedila eskatzen zen, 2017ko otsailaren 2ko Batzarrean erabili beharrekoa.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurto-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea